

Auzopolisen 2. Topaketa

Ekainaren 26an Auzopolis, Denboraren Bankuak, 2. Topaketa egin zuen Txalaparta elkartean. Bertan, etorkizunerako ekimen berrien informazioa helarazi zitzaien bazkideei. Alde batetik, “Ezagutu, elkar ezagutzen” proiektua aurkeztu zen, Ermuko Denbora Bankuaren ezaugarri berberak dituzten beste Denbora Bankuetako bazkideekin elkar trukeak egiteko. Horretarako, Auzopoliseko arduradunak estatuko zenbait bankurekin harremanetan jarri dira eta 15 erantzun inguru jaso dituzte. Beste alde batetik, bazkide bakoitzari, bere kontuaren egoeraren berri eman zitzaion. Era berean, hilero, nahi duten bazkideak elkartzeko kafe bat hartzea proposatu zen eta hurrengo hitzordua irailaren 3an izango da arratsaldeko 6etatik 8ak arte Txalaparta elkartean. Auzopoliseko bazkide guztiak elkartzeko, sei hilabetero topaketa bat egitea erabaki zen, abenduan eta uztailean hurrenez hurren. Bigarren saio horretan, txikienek erroskillak egin zituzten eta ondoren, postre-dastaketa egin zen. Gaur egun, Auzopolisek 49 bazkide ditu eta 20tik gora zerbitzu eskaintzen ditu.